

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2009ko abenduaren 18a / 270. zenbakia

- **HERRIKO KONTUAK** **Arkupe eta Gabonak** 05
- **KIROLA** **Galarraga, Gipuzkoako txapeldun** 08
- **AIAKO BERRI** **2010erako udal aurrekontuak** 10

- **HERRITARRA** **Arantxa Arrillaga** 25
- **GEHIGARRIA** **Sanikolasetako argazkiak** Barruan
- **GEHIGARRIA** **Aiako argazki lehiaketa** Barruan



Nor bere bidetik;
oposizioan batera

Legealdiaren erdia pasa da eta, talde politikoei egiten diegun elkarrizketen barruan, Ezker Batuaren eta Aralarren txanda da.



IZARRA BIDEOA

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

TV-LTD-DVD
MP3
TELEFONOAK
IRABIAGAILUAK
ZUKUGAILUAK
ETA...

TIEN 21
Aritzaga kalea 15 - ORIO - 943 85 38 81

**EZ JOAN URRUTIRAGO,
HEMEN ZURE OPARIA**

2010


OPARITZEKO BONO BEREZIAK

ETORRI ETA LASAI GALDETU!

- Gorputzeko tratamenduak:
zelulitisa, zirkulazioa...
- Aurpegiko tratamenduak:
zimurrak, nutrizioa, orbanak...
- Depilazioa argizariarekin
- Depilazioa laserrarekin
- Mikropigmentaizioa
- Betileen luzapenak

**Aurpegi garbiketa +
gorputzeko peelinga
45€**

**Permanentea +
betileen tindaketa
35€**



ZISS
Estetika ile-apaidegia
HISTOA

Tel: 940 30 81 70 San Mames B, Bilbo

Medieder
Medicina eta Terapiak

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea

20810 ORIO

943 83 15 27

karkara@karkara.com

Editorea

Karkara taldea kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Mikel Aranzabal

Erredakzio taldea

Pat Cowie, Miren Etxeberria,

Iker Gurrutxaga eta

Jabier Zabaleta

Aiako erredakzioa

Eli Lasa eta Pat Cowie

Publizitatea

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Mikel Aranzabal

Gehigarrien diseinua

Iker Gurrutxaga

Testuen zuzenketa

Miren Etxeberria eta

Jabier Zabaleta

Ale honetako laguntzaileak

Eukeni Santamaria eta

Unai Manterola

Diseinua

KARKARA taldea eta Goio Arana

Banatzaileak

Ekiñe Miralles eta

Goiuri Unanue (Orio)

Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)

Lege gordailua SS-346/90

ISSN 1132-1105

Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik.

KARKARAn argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

Abokatuaren lanak

IÑAKI GURRUTXAGAK ANOETAKO BELODROMOAN AZAROAREN 29AN ABESTUTAKO BERTSOAK

1


Astean behin edo bitan
etortzen naiz Madrilerara,
beren gisan egin zuten
Audientzi Nazionalera.
Sartu aurretik esperantza
ta bueltan sarri galera.
Auzipetu gutxi datoz
gero nerekin kalera.
Hala ere intentzio
osoz ahalegintzen gera.
Baina intentzioz soilik
ezin da bete kartera.
Falta ditut mila datu,
sumarioko papera...
eta kasu bat ezin da
hola eraman aurrera.

2

Hain krudela ezpalitza
ze nolako komeria!
Hala ere guretzako
bihurtu da tragedia.
Azken auzipetu honi
atera nahi aurpegia,
baina berriz ere busti
zait eskuineko begia.
Espetxe prebentiboan
pasata bi urte ia,
hasi eta bukatu da
epaiketan lantegia.
Bat'e entzute ez tuena
hori da entzutegia
ta beraien gezurrekin
eraiki dute egia.

3

Epailearen jarduna
nolako hipokresia,
hitz bakoitza geure kontra
etorri ohi den gezia.
Gure kontra egin dute
hain tribunal berezia
eta beraien hitzetan
askok ondo merezia.
Abokatua naiz neurez,
bide onean hezia,
baina holakotan zer da
izatez abogazia?
Esperantza gerorako
badaukat hazi-hazia,
legeak baztertu eta
egitea justizia.



GALDERIZAGIRRE

PUBLIZITATE PREZIOAK

IRAGARKIA ALERO JARRITA

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



Euzko Jaurlaritzak

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Beti da garaia

Gogoan izan beti dela garaia... garaia da maitatzeko eta jasotzeko, garaia da aldatzeko eta onartzeko, garaia da berrir hasteko eta abiatzeko, garaia da berpizteko eta itxaropena izateko, garaia da konprometitzeko eta parte hartzeko, garaia da, alegia, bizitzeko.

HERRITAR BAT

Eskerrik asko

Orion ere, beste hainbat herri-tan bezala, Egunkariaren Aldeko Batzordea osatu dugu, *Egunkaria* auziasalatzeko eta auzipetuei babesa eta laguntza esakintzeko.

San Nikolas jaietan Txosna Batzordean parte hartu genuen. Aste honetan kontzentrazioa egin dugu eta larunbat honetan manifestazioa joango gara. Lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkiegu musu truk *Euskaldunon Egunkariaren* aldean egin duten guztiei, lanerako prest agertu direnei eta ekitaldietan gogoz parte hartu dutenei.

Egunkaria auziaren bidegabekeria ez da amaitu. *Egun-*

kariaren itxierak jada ez du atzera bueltarik, baina injustizia are handiagoa izan daiteke oraindik.

Aste honetan bertan hasi da *Egunkariaren* sortzaile eta bultzatzaileen kontrako epaiketa Espainiako Auzitegi Nacionalean. Urtarrilean jarraituko du. Zuen laguntza-ren premia izaten jarraituko dugu, beraz.

Egunkaria libre!
Auzipetuak libre!

EGUNKARIAREN ALDEKO
BATZORDEA

Sanikolasen balorazioa

Txosna batzordekoek abenduaren 14an egin genuen San Nikolas jaiak baloratzeko biler-a eta atera genituen ondorio nagusiak hauek dira:

1.- Edalontzi berrerabilgarrien kontuari dagokionez, ahal genuen guztia egin genuen diru-itzulketak ondo eramateko, baina sistema berria da guretzat ere eta, sanikolasetan jende asko dabilenez, ezin izan genuen nahi bezala gestionatu.

Hondakinak denon arduradirela argi daukagu, eta pixkanaka festetan sortzen diren hondakinak gutxitzen joan behar dugu eta ohiturak hobetu.

2.- Jakin dugu sanikolasetan garbitzaile bat erasotua eta zauritua izan zela plazan. Txosna batzordekoek jai herrikoien alde egiten dugu eta inolaz ere ez dugu onartzen horrelako erasorik. Parranda osasuntsuak eta naturalak nahi ditugu eta horrelako jokatibideek gure mespretxu osoa dute. Bazterrak txikitzen ari-tzen direnentzat ere berdin balio du gure mezu honek.

3.- Jaietan ikaragarri pila entzun dugu euskaraz eta oso gutxi izan dira tragoa beste hizkuntzaren batean eskatu digutenak. Zorionak eta segi horrela: Euskal Herrian euskaraz!

Ondorio gehiago ere ateragenuen, baina horiek lehenengo Udalarekin hitz egin beharrekoak dira; beraz, sanikolasen balorazio orokorra egin ostean jakinaraziko ditugu.

TXOSNA BATZORDEA
(EGUNKARIAREN ALDEKO
BATZORDEA, ERRAUSTEGIAREN
KONTRAKO TALDEA, ETXERAT,
HARRIBIL, ORIOKO HERRI
IKASTOLA, OKK, XALTXERAK ETA
TXURRUMUSKI)

Erregeak datoz!

Kaixo, haur eta gazteak. Urtero bezala, Erregeei ongi etorria egiteko panderoak,

danborrak eta barrikak astindu behar dira. Horretarako, abenduaren 18an, 19:00etan, Ikastolako pergolan, 6 urtetik gorakoei izena hartuko zaie eta lehen entsegua abenduaren 21ean, 19:00etan, izango da.

Antolaketa parte hartu nahi duten guraso eta herri-tar guztiei ere deia zabaltzen diegu.

Bestalde, jaiotza, kantu eta jantzien lehiaketa Ikastolako pergolan egingo da abenduaren 30ean, 17:00etatik aurrera. Polita izango litzateke abenduaren 24an arratsalde-z jaiotzarekin kalez kale ibiltzen diren taldeak bertan parte hartzea.

TALAI MENDI M.A.

Eskerrik asko!

Aurtengo jaietan KARKARAK bota du txupinazoa. Ekitaldian Udalak, herriaren ize-nean, Errikotxiakoek osatutako bertso polit hau eskaini zigan:

Hogei urtetan sartu zarena gure sukaldeetara, beste hainbeste urtean ongi etorria izango zara. Kale estu bat, kale ilun bat, zen lehenago karkara, ta zuri esker gaur egunean etorbide zabala da.

KARKARA TALDEA

Dorronsoro Denda
1961etik zure ondoan
AUKERA HANDIAGOA FRUTATEGIAN
Tel 943 83 09 37



bodegas ERRASTI, S. L.



Eskuakderako banatzailea
Zudugarai, Getariako txakolina
Ilagares, ardo gorri nafarra
Bodegas Gailur: Señorío de Larraín
Gailur eta Ardandegi.
Arabar Errioxako ardoak.

Eusko Gudari 46 ORIO • 943 83 03 86 / 83 59 52 • E-posta: bodegaserrasti@euskalnet.net

Ille apaindegia
MARIJO
Neska eta mutilentzat



Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

Igo zaitetz haize berrietara!



Galeña I

943890416-677149934
galeña1orio@hotmail.com

SOLOZABAL
autoeskola



Eusko Gudari, 30-1. ezk
telefon: 943 83 08 12

EROSKETAK HERRIAN BERTAN EGITEA SUSTATU NAHI DUTE

Gabonetarako kale animazioa bultzatu nahi du Arkupek

Gabonetarako hainbat ekintza antolatzea erabaki dute Arkupe elkartekoek. Horretarako, bilerak egin dituzte eta lanean aritu dira egunetan.

Abenduaren 12an hasi zuten Arkupe merkatari elkartekoek Gabonetako prestatu duten programazioa.

Eusko Gudari kalearen hasieran 5 metro luze den pinua jarri dute apain-apain eta hori izan da aurtengo berrikuntzetako bat. Pinuan jarri diren apaingarriak merkatariak berek eginak dira. Gainera, arbolaren aldamean, komertzioak zabalik egongo diren orduetan, Gabon kantakentzuteko bozgorailuak jarriko dituzte.

Kontzertuak ere izango dira eta lehen emanaldiak larunbatean egin ziren. Hainbat estilotako 4 kontzertu izan ziren entzungai eta, besteak beste, Mahaster River taldeak jo zuen plazan. Entzule askorik ez zen izan, baina datozen asteburuetan ere izango dira kontzertuak. Hurrengoak, hilaren 19an, 26an eta urtarrilaren 2an izango dira. Aldiro lau taldek joko dute eta kontzertuak eman-go dituzten tokiak hauek izango dira: Ibai Ondo kalearen hasiera, Zakilaeneko aldaparen hasiera, Loretxu taberna pareta eta Herriko Plaza.

Xpressionk!!! elkarteak antolatzen ditu musika emanaldi horiek eta irabazi asmorik ez duen taldea da, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren dirulaguntzak jasotzen dituen. Hain ezagunak ez diren artistei plazan aritzeko aukera ematen die, eta Arkupe horretaz baliatu da Gabonetan Orioko kaleak bizitzeko eta jendeak gozatzeko erosketak egiten dituen bitartean.



Lehen asteburuko ekitaldi bereziena, Zakilaeneko aldapan Iban Nikolairen *didgeridoo* emanaldia izan zen.

KARKARA

ABENDUAREN 24A BEREZIA

Abenduaren 24an haurrentzako egun berezia prestatu dute. Arratsaldeko 17:30ean, itsasontziz Olentzero eta Mari

Domingi etorriko dira moilara. Haurren Gabonetako eskariak jaso eta gozokiak banatuko dituzte; Txurru-muskikoek eta Ikastolakoek

aurpegiak margotzeko taillerra antolatuko dute, Arkupe-ekin elkarlanean. Bertara hurbiltzen diren guztientzat, txokolata beroa ere banatuko dute. Egunaren bukaeran, Olentzero Goikokaletik mendialdera joango da.

Gabonetan, erosi herrian!

Gabonetako giroa eraikitzeko, Udaleko Komertzio batzordeak eta merkatariak zerbait egin beharra zegoela ikusi genuen. Eta horren haritik joan da programaren eraketa.

Horrela, bide batez, herriko dendetan salmentak ugaritzea lortu nahi dugu. Udan jarritako txu-txu trenak eta stock azokak nolako erantzuna izan zuten ikusita, herri-giroari eutsi nahi diogu.

Komertzioek kalea bizirik mantentzen dute, harremanak sendotu. Eusko Jaurlaritzaren kanpainak dio komertziorik gabe ez dagoela herriari bizirik eusterik, eta esaldia geure egiten dugu.

IÑAKI GARCIA | ORIOKO UDALEKO KOMERTZIO BATZORDEBURUA

HELBURUAK

Arkupek Gabonetako programazio osatuarekin bertakoak herrian geratzeaz gain, Donostialdeko jendea Orion erostera animatu nahi du, kultura, aisia eta merkataritza uztartuz. *Autopistaren irteerarekin, Donostiako komertzioez gain beste aukera dute kanpotarrek Orion*, esan digu Kristina Salsamendi Arkupeko ordezkariak. Besteak beste, TeleDonostin erreportaje bat egin diete Gabonei begira, beren berri emanaz.

ASTEBETE AURRERATU DUTE ETA ABENDUAREN 19AN IZANGO DA HERRIBIL

Dantza baino askoz gehiago Herribil 5 ikuskizunean

Aurreko urteetako itxurari eutsi egingo dio ekitaldiak, baina aurkezle berriak izango ditu: Andoni Atorrasagasti, eta Xabier Ibarguren.

Abenduaren 19an, besteetan baino astebete lehenago, egingo da Harribil dantza taldeak antolatzen duen Gabonetako Herribil saioa. Bosgarrena izango da aurtengoa eta betiko egiturari eutsiko dio, herri-tarrak eta herriko taldeak bilduz, dantza izanik ekitaldiaren ardatz nagusia. Gaueko 22:00etan hasiko da saioa, kiroldegian, baina atearak ordu laurden lehenago irekiko dituzte eta sarrera doakoa izango da.

Harribileko dantzariak estilo modernoa jorratuko dute eta horiek izango dira jaialdiko protagonista nagusi, baina talde gehiago ere izango dituzte oholtzan lagun. Talai Mendikoek dantza tradizionalagoekin arituko dira eta Ipar Euskal Herriko dantzak jorratuko dituzte. Gazte asanbladak 2. Gazte Festen laburpena egingo du bideo batekin eta gaztetxearen aldarrikapena agerian uzteko kanta ere entzungai izango da. Danbolin musika eskolako ikasleek Gabon kantutze joko eta abestuko dituzte eta ikusleek haiekin batera kantatzeko aukera izango dute, pantailetan agertuko diren hitzak jarraituz. Errikotxiakoak, berriaz, bertsoan arituko dira.



21:45ean irekiko dira kiroldegiko atearak ikuskizunerako.

KARKARA

**Talai Mendik,
gazte asanbladak,
musika eskolak
Errikotxiak eta
senegaldarrek ere
parte hartuko dute
emanaldian**

Hala ere, aldaketa ere izango dira eta nabarmenena aurkezleena izango da. Iñigo Gai-

tonek, kanpoan denez, huts egingo du aurreneko eta Iban Egigurenek Andoni Atorrasagasti eta Xabi Ibargureni pasa die lekukoa. Hala ere, Iban Egigurenek eta Jon Itsasok ere parte hartuko omen dute ikuskizunean, baina ez dute argitu nola.

Beste berrikuntza bat bost senegaldarrek osatutako taldearen parte hartzea izango da, danborrak astinduko baitituzte beren herrialdeko kulturaren zati bat oriotarrongana hurbiltzeko.

LABUR

MUSIKA

Orioko taldeak Lasarte-Orian

Abenduaren 19an, Orioko bi musika talde arituko dira Lasarteko Multimusi-kalean. *Can't explaine*k, 17:00etan, Jalgi tabernan emango du kontzertua eta *Arrautz Ustelake*k, 20:00etan, Obelix garagardotegian.

BERTSOLARITZA

BE Ceko finalean, bi autobus

Oso gertutik jarraitu dute hainbat oriotarrek aurtengo Bertsolari Txapelketa Nagusia. Herriko bolondres asko ibili zen lanean, esaterako, Donostiako belodromoan izan zen finalerdian.

Finalerako bi autobusetan sartuta joan ziren 80 bat lagun eta autoz beste hainbatek ere egin zuten Barakaldorako bidea. Herriko asko ibili ziren lanean BE Cengoizean goizetik. Gehienak sarrerako kontrolean aritu baziren ere, autobusetako ardura-dunik ere izan zen, eta baita koordinazio lanetan ere.

Arratsaldeko saioaren aurretik, gainera, herritik joandako hiruko txarangak BE Ceko bildutako bertsozaleak kantari jarri zituen. Bertsozale Elkartek esanda bezala, boluntarioen lana ezinbestekoa izan da. Oriotar askok merezia zuten aipamena.

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L
TORNADAK - SAILAK

Santiago auzoa - 18 postakutxa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: mmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR
R
180 9002

Esferako balbula
AENOR kalitate ziurtagiriduna

NATURISTA
KONTSULTA ORION

— Tratamendu naturalak —
— Oreak energetikoak —
— Baxen loreak —
— Itaki —

Jesus Fernandez Huergun
naturagile eta dietetiko

Tel: 655 726 291
e-mail: orkaizua@gmail.com

Zaragueta
Eskola Orto

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

URTEA BUKATU ARTE ZABALIK DAGO EGITASMOAK AURKEZTEKO EPEA

Baserrien fitxategia osatzeko beka deialdia egin du Udalak

Lanaren inguruko txostena aurkeztu behar da abenduaren 31rako eta, nahikoa maila duen eskaintzarik ez balego, hutsik gera daiteke.

Orioko baserrien inguruko informazioa biltzeko, Udaleko Ekintza Ekonomikoetarako batzordeak baserri guztien fitxa bana egin nahi du. Horretarako, 3.000 euroko beka emango du eskatzen dutenen artean onarpeneko prozesuan puntu gehien lortzen duenarentzat.

Beka lortu nahi dutenek abenduaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dituzte eskaerak udaletxean. Lana egiteko epea 2010eko otsailetik maiatzera izango da eta eskatzaileak bete beharreko baldintzak EGA edo balio bereko titulua—fitxategia euskaraz egin behar delako— eta erdi edo goi mailako unibertsitate titulua izatea dira. Taldean aurkeztu daiteke eta, kasu horretan, bat izendatuko litzateke lanaren ardura-dun.

Lana aurkezteko unean, egin nahi den lanari buruzko txostena aurkeztu behar da, besteak beste, fitxen edukia zein izango den eta erabiliko diren baliabideak zeintzuk izango diren azaldu beharko da.

Baserrien fitxen edukien egokitasuna, interesa eta bide-



Azaroaren 30ean bildu zen Euskararen Aholku Batzordea udaletxeko teilatupeko gelan.

KARKARA

ragarritasuna; oriotarra izatea edo Oriorekin lotura zuzena izatea eta eskatzaileari egingo zaion elkarrizketa pertsonala hartuko dira kontuan beka nori eman erabakitzeko garaian. Batzordearen ustez nahikoa maila izango duen eskatzailerik ez balego, beka bertan behera geratuko litzateke.

AHOLKU BATZORDEA

Orioko Udaleko Euskararen Aholku Batzordeak ere urte amaierako balantzearen bileran egin zuen azaroaren 30ean.

Bertan, herriko hainbat taldeetako partaideak izan ziren, hala nola, Zaragueta, Ikastola, KARKARA eta Udala bera.

Aurten egindako lanaren balantze positiboa egin zuten eta datorren urteari begira, etorkinen hizkuntz integrazioan hasitako lan-ildoarekin jarraitzea erabaki zuten.

Horretaz gain, Orioko Udaleko Euskara batzordeak abenduaren 22an Fabian Loidi zenari buruz Alex Aisa igeldoarrak idatzitako liburuaren aurkezpen ekitaldia egingo du kultur etxean, iluntzeko

Omenaldi txiki bat egingo diote herritarrek Fabian Loidi Peña zenari, haren bertsoak kantatuz abenduaren 22an

19:00etan. Anjel Lertxundi idazlea han izango da eta omenaldi txiki bat ere egingo diote herritarrek Loidi zenari, haren bertsoak kantatuz.


MEDIKUNTZA NATURALA,
HANAKAKO KONSTELAZIOA,
KONSTELAZIO FAMILIARRA
ETA TAROT TERAPEUTIKOA
 Debax, Orión, Donostia...
 KONTAKUAK: 685 73 93 55 —Izarre—

Sukalde eta bainuen erreformak
XANTI MUJIK
Igeltseritza
 699 46 76 21
 943 13 10 37

Goizeko
KAFETEGIA
 **943 83 28 55**
 Aita Lertxundi, 33 beheak - ORIO
 Autobus parada ondoan



Galarraga eta Onsalo familiarekin txapelketa irabazi ostean.

KARKARA

DIARIO VASCO TXAPELKETAKO FINALA JOKATUKO DU ABENDUAREN 26AN

Eneko Galarraga Gipuzkoako txapeldun

Denboraldi oso ona egiten ari da Eneko Galarraga. Eskuz binakako Gipuzkoako txapelduna izateaz gain, Diario Vasco txapelketako finala jokatu du hilabetearen bukaeran.

Aurtengoan denboraldi oso ona egiten ari da Eneko Galarraga. Gipuzkoako afizionatuen gorengo kategorian jokatu du eta hainbat txapelketa tan garaile izan da.

Gipuzkoako txapelketako finala azaroaren 28an jokatu zuen Tolosako Beotibarren. Aurrean, Unai Onsalo izan zuen lagun, baina gripeak jota iritsi zen Aresoko pilotaria eta lana beltz egin behar izan zuten Baez eta Telletxea mendean hartzeko.

Azkenean, kostata, baina txapela jantzi zuen oriotarrak eta ez bairik gabe onena izan zen partidari.

Prestijio handiena duen txapelketa, hala ere, Diario Vasco da eta iazko txapeldunarekin, Eneko Ioldi huarterekin, ari da jokatzeko. Abenduaren 26an jokatu du finala Zumarragako pilotalekuan, 11:45ean hasi den jaialdian.

Finala ikusteko, Orioko Udalak lagunduta, autobusa antolatu dute Zumarragaraino joateko. Sarrera eta autobusaren prezioa, 7 eurokoa izango da eta izen-ematea kiroldegian edo Errustan egin behar da. Dena den, sarrerarik lortu ez duenak ETB1en jarraitu ahal du finala.

Horretaz gain, bazkaria ere antolatu dute. 30 euroko menua izango dute Altxerrin. Izena emateko momentuan ordaindu behar da autobusarena eta sarrera, eta ez da derrigorrezkoa bazkaltzera joatea. Epea hilaren 18an bukatuko da.

Unai Onsalo izan zuen lagun, baina gripeak jota iritsi zen Aresoko pilotaria, eta lana beltz egin behar izan zuten

HERRIKO BESTE PILOTARIAK

Ibon Aranalde *Andu* ere eskuz ari da jokatzeko. Buruz buru jokatu du Gipuzkoako Txapelketa eta aurreko larunbateko finalerdian 22-9 irabazi zuen Muguruza bergararraren aurka. Asteburuan jokatu du finala Oiartzunen.

Asier Lizarralde, bestalde, erremontean jokatu du Gipuzkoako Txapelketa eta bera ere finaleraino ailegatu da. Finalean, 40-28 galdu zuen Hondarribian.

LABUR

SASKIBALOIA

3x3 arrakastatsua

Inoiz baino talde gehiago izan da aurtengo sanikolasetako saskibaloiko 3x3 txapelketan. 53 taldek hartu zuten parte hainbat adin-taldetan banatuta.

Txikienetan, *Number One* talde oriotarrak irabazi zuen txapelketa. Infantiletan, *Aiarrak* taldeak irabazi zuen, eta helduenetan, *Downtown* talde ordiziarrak.

Bestalde, liga federatuan, Orioko Ikastola ZAST taldeak aste honetan lehen partida galdu du Azpeitiko Iraurgiren aurka eta, ondorioz, bigarren postura jaitsi dira.

JUDO

Oiana kirolari onenen artean

Munduko judo txapelketan bigarren izanagatik, *El Correo* egunkariaren eta haren edizio digitalaren urteko kirolari onena aukeratzeko lehiaketako 20 hautagaien artean dago Oiana Blanco judoka oriotarra.

Abenduaren 31 arte dago elcorreodigital.com webgunean botoa emateko aukera eta irabazleak, tituluz gain, 3.000 euro jasoko ditu nahi duen elkarteari laguntza emateko.

Ez du irabazten erraza izango Oianak saria, izan ere, Juan Martinez de Irujo pilotaria, Athletic futbol taldea, Baskonia saskibaloia taldea, Kaiku arraun elkartea edota Ernesto Valverde Vila-realeko futbol entrenatzailea ere hautagaien artean baitaude.

Azken hilabeteetan Asian zenbait txapelketetan hartu du parte Oianak, esaterako, Txinan, Hego Korean eta Japonian.

IBAN ETA KEPA ORBEGOZO | XAKE JOKALARIAK

“Gu biok ongi aritu arren, oraindik aita dugu nagusi”

Santiokoak dira eta 13 urte ditu Ibanek eta 9 Kepak. Berentzat denborapasa bat besterik ez da xakea, baina Iban txapeldunorde eta Kepa txapeldun izan dira sanikolasetako txapelketan.

Nondik sortu zaizue xakera-ko zaletasuna?

Kepa: Aitak irakatsita, Iban ikusten nuen jokoan eta nik ere probatu egin nahi.

Iban: Nik, egun batez, eskolan nintzela denbora librean xakea ikusi eta probatu egin nuen. Gero, etxean ere sortu genuen nonbaitetik taula bat eta horrela hasi ginen.

Kepa: Orain aita ez, biok ibiltzen gara. Dena den, oraindik bera da nagusi.

Zenbat urte zenituztela hasi zineten honetan?

Iban: 7-8 urterekin hasi nintzen, aitak eta biok jarduten genuen.

Kepa: Nik Iban hasi eta urtebetera heldu nion xakeari, bost urte nituela.



Iban eta Kepa bigarren eta lehena izan ziren xake txapelketan.

KARKARA

Nola prestatzen duzue halako txapelketa bat?

Iban: Ez gara urte osoan prestatzen halako txapelketa baterako, tarteka praktikatzen dugu.

Kepa: Txapelketa gerturatzeko ari den bezala, azken bi egunetan edo serio antzera egiten dugu xakean.

Zein da zuen jokaldi gogo-koena?

Iban: Sekretua edo izaten

da jokaldiarena.

Kepa: Artzainaren matea da nire gustukoena.

Errez egiten al da ba hori?

Kepa: Ez dakienari bai, nahikoa erraz. Lau mugimendutan irabaz daiteke partida.

Hemendik kanpora inon lehiatzen al duzue?

Iban: Nik bai. Iaz Zarauz-ko taldearekin jokatu nuen

Txapelketa gerturatzeko ari den bezala, azken bi egunetan edo serio antzera egiten dugu xakean, bestela ez

Gipuzkoako 3. mailan eta horretaz gain Orion eta Zarautzen baino ez dugu jokatzeko.

Kepa: Nik Orion bakarrik jokatzeko dut, iaz eta aurtengo garaile izan naiz, nahiz eta iaz gehiago kostatu.

Iban: Ni sanikolasetan bitan izan naiz lehenengo eta lehen aldian eta orain bigarren.

Aurrera begira zein dirazuen asmoak?

Kepa: Halako txapelketetan baino ez dut hartuko parte.

Iban: Asko jardun behar da ona izateko eta guk nahiago dugu saskibaloia.

LEIHOLAN

Aholkularitza teknikoa eta erakusketak

Tabrika Agote Industrialdea Agote, 5. 20740 Zarautz	Erakusketak San Prantzisko, 1. 20800 Zarautz	Albia Larraundi, 21. 20810 Orreaga Tel: 943 09 49 35
---	---	--

Sagasti

LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI
 Tf: 605 732 913
 Faxa: 943 020 213
 ventanasagasti@euskalnet.net
 Bizkaia kalea, 20-1 B
 20800 Zarautz

Joseba Ostolaza

TAXIA

24 ORDUKO ZERBITZUA
 Tf: 646 510 288

Baxoalde, 9 ORIO

Alustiza Autobusak

Alustiza Bidaia S.L.

Autobus litera eta 16, 19, 25 eta 56 plazakoak. Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 - 656 78 29 99

JIMMY URIA | ARGAZKI LEHIAKETAKO IRABAZLEA

“Denon etxean argazkiak izateak animatu egiten nau”

Aiako argazki lehiaketan aurreneko saria irabazi berri du Jimmyk. Askotan ikusten dugu Aiako kaleetan barrena kamera eskuetan helduta. Nolako afizioa duen galdetu diogu.

Noiz hasi zinen argazkiak egiten?

Egiten, akaso hiru urte izango dira, baina kamera duinarekin, urtebete. Zeharo autodidakta naiz: liburuak irakurri, irudigintza murgiltzen direnei galdetuz, proba eginez... betiere kamera digitalarekin, reflex xume batekin. Lehen kamerak oso garestiak ziren, eta diru eta denbora asko eman behar zenuen errebelatzen ikusteko zer zenuen. Horregatik hasi nintzen hain berandu. Tresnei ez diet garrantzi handiegirik ematen; gehiago da imajinazioa erabiltzea, momentua bilatzea... ekipa oso ona izatea baino.

Lehiaketa zale zara?

Berez, ez. Herrikoetan bakarrik sartu naiz. Alde batekin, argazki asko egiten ditudalako herrian eta inguruan, eta, behin hasita, egokiena aukeratzeko, dinamika batean sartzen naiz, lagun baten iritzia eskatzen dut... eta base-riaren gairako argazki asko nituen. Bestetik, nire ustez, ona da herritarrek bertako gauzetan parte hartzea. Gaur egun, edozeinek izan dezake kamera bat eta parte hartu. Herriko lehiaketa denetan hartuko nuke parte, eta hurrengo gaia, aurpegiak izena duena, gustukoa dut, asko gustatzen baitzait lehenengo plano alantzea. Hala ere, korapilatsua ikusten dut, jarritako araua dela eta, hau da, norbaiten aurpegi lehiaketan azaltzeko baimena eskatu beharra.



Fotografia asko gelditzen direla hartzeko esan digu Jimmyk.

KARKARA

gaika. Ez dut ia bat ere botatzen; horretarako da disko gogorra! Ez dakizu zertarako erabiliko duzun argazki txar hori hemendik hogeit urtera. Batzuetan, begiratzen ditut eta lagun baten bat azaltzen den foto guztiak oparitu egiten dizkiot edo jendeak eskatu egiten dizkit: festetakoak, ezkontzakoak...

Berez irudigintza interesatzen zaizu?

Beti gustatu izan zait, baina diruagatik ezin izan nintzen barrurago sartu. Garai batean, bataio, komunio, koardrilen afari, ezkontza eta abarretan bideoz grabatzen nuen eta gero editatu egiten nuen, bideo batetik beste batera pasaz, ez gaur egun egiten den bezala! Baina pretensio artistikorik ez dut! Gai eta egoera asko gustatzen zaizkit; paisaia, akaso, gutxien. Gauza orokorrak baino zehatzak gustatzen zaizkit: adar bat, base-ri baten leiho bat, adibidez.

Bete egiten zaizu?

Ondo pasatzen dut argazkiak egiten, eta begiratzen ditudanean, egindakoa baloratzen, are gehiago. Esatei, hau ona da, ukiturik gabe. Hori da hoberena niretzat.

Ordenagailuarekin aldatzea erreza da, baina niretzat inportanteena da momentua harrapatzea. Gaizki ateratzen da? Izorrai! Egin beste bat edo bueltatu beste egun batean. Fotografia asko gelditzen dira hartzeko, eta oso denbora gutxi dut. Egiten ditut, normalean, beste zerbaitek egiten ari naizen bitartean: ume zain nagoela, ezkontza batean, mendian nabilela... Beti zer edo zer egiten dudanean, kamera eramaten dut, baina ez naiz etxetik iristen argazkiak egitera.

Ondo pasatzen dut argazkiak egiten; are gehiago egindakoa baloratzen

Gero, egutegia egitea ideia ona da jende gehiagok parte hartzera bultzatzeko. Lehiatzearekin batera, beste helburu bat duzu buruan: guztien etxean egotea, eta ez bakarrik erakusketan azaltzea.

Urtero jende berak hartzen du parte?

Bai, baina sorpresa asko izaten dira. Batzuetan argaz-

Tresnei ez diet garrantzi gehiegi ematen: gehiago da momentua bilatzea

kilari ona izatea da inportantea, besteetan, loteria bat da. Aurpegiaren gaiarekin, esaterako, gauza ez da ona edo txarra zaren, baizik eta zeinek hartuko duen fotografia kurio- soena, justu momentu ego- kian harrapatua.

Foto guztiak gordetzen dituzu?

Saiatzen naiz, dataka eta

AZAROAREN 25EAN EGIN ZUTEN AZKEN UDALBATZARRA

2010erako aurrekontua onartu zuen Udalak

2.471.496,30 euro izango ditu Udalak 2010 urtean gastatzeko. Hala ere, finantzazio bila dabil hobekuntza gehiago egiteko.

Azaroaren 25ean egin zen 2010erako udal aurrekontua eztabaidatzeko udalbatzarren osoko bilkura eta, espero zen bezala, onartu egin zen.

Bost zinegotzi bakarrik agertu ziren plenora: EAJko 4, Igor Iturain alkatea barne, aurrekontuak onartzearen alde bozkatu zutenak, eta EAEko Antxon Gomez, abstenitu egin zena.

Guztira, 2.471.496,30 euro izango ditu Udalak 2010ean gastatzeko eta hiru gairi eman zaie lehentasuna: Urdanetarra ura eramateari, Altxerriko kobazuloaren erreplika egiteari eta kanposantu inguruan pasealekua egiteari.

Baserrietako bideetan, frontoian eta tren geltokitik Ubegun industrialderako bidean egin beharreko hobetze lanek itxaron egin behariko dute oraindik, aurrekontutik kanpo geratu baitira. Beraz, lan horiek finantzatzeko beste diru iturri batzuen bila jardun beharko du Udalak.

Orokorrean, hauek dira datorren urterako udal aurrekontuak:

Goi zuzendaritzarako 93.162,55 euro; administrazio orokorreko gastuetarako 214.793 euro; etxez etxeko zer-



Bost zinegotzi bakarrik agertu ziren Udalbatzarrera.

KARKARA

Baserri bideetan, frontoian eta tren geltokitik Ubegunera bidean egin beharreko lanak gerorako utzi dituzte

bitzurako 133.623,28 euro; familientzako diru laguntzetarako 10.200 euro; Goiz-argi zahar etxerako 18.701 euro; kooperazio proiektuetarako

8.716,74 euro; ospitaletxerako 72.652,27 euro; gizarte laguntzailearentzako 43.095,29 euro; gizarte segurtasunerako, babeserako eta sustapenerako 182.593,72 euro; gizarte sustapenerako 43.586,65 euro; hezkuntzarako 130.288,38 euro; kaleen, lorategien, parkeen... mantenua eta argindarra 649.717,10 euro; hondakinen kudeaketarako 240.294,21 euro; kulturarako 179.267,87 euro; kirolerako 59.073 euro; eta euskararako 18.560,90 euro.

LABUR

LASTERKETA Sansilbestrea

Aian, urteko azken egunean, Sansilbestre lasterketa egingo da bigarren bez.

Arratsaldeko 5etan hasiko da plazatik eta 4 kilometro eta erdiko ibilbidean egin beharko da korrika.

Partehartzaile guztien artean banatuko dira sariak, zozketa bidez, eta hauek dira: 2 laguntzako afaria Kanua jatetxean, 2 laguntzako afaria Jauregi jatetxean, 2 laguntzako afaria Arruti jatetxean, 2 laguntzako gosaria Iturriozena kafetegian, 2 laguntzako gosaria Orioko Haize-Berri kafetegian eta 2 bono masajeak hartzeko.

Izena emateko kultur etxera jo behar da aurretik edo, bestela, irteeran bertan egun berean.

MUSIKA

Aristerrazuko erromeriak

Aristerrazuko erromeria elkarteak hainbat erromeria antolatu ditu Andatza auzoan Gabonetarako.

Emanaldiak 18:30etik 21:30era izango dira eta ondorengo hauek dira airtuko direnak: abenduaren 20an, Agurtzaren eta Jon Elustondo trikitilariak; abenduaren 27an, Bide batez taldea; urtarrilaren 3an, Urarte hirukotea; eta urtarrilaren 6an, Kupela taldea.

agirresarobe ARKITEKTURA
OBRA ETA PROIEKTUAK

ETXEBIZITZA ETA LOKALEN ERREFORMA PROIEKTUAK
FATXADA ETA TEILATUEN ERABERRITZE PROIEKTUAK, IBOSAILUAK
OBRA ZUZENDARITZAK, INFORMEAK, GRENIO KOORDINAKUNTZA

Orioko Ogia

ORIOGI

OPIL OKINDEGIA
Frontoi ondoan
Ifnoa: 943 83 01 89

AIAKO LEIHOA

Hausnarketa biderako txapela

Aiakoleiho honetara iritsi gabe nengoen, barruko aldetik behintzat, nahiz eta hamabostero begiratu bertan ateratzen direnei. Eta askotan pentsatu izan dut hau eta hura idatziko nukeela, eta orain garaia iritsi eta zer?

Igandeko berri bururatu zait: Maialen, zeinen handia Maialen. Hamar urte hauetan neska honek gauza asko hobetu ditu: bertsokera edertu du, joskera edertu du, arrazonamendua eta hausnar-bideak edertu ditu, kantu-era izugarri edertu du... eta zergatik ez, bera ere edertu da.

Bizitza, gizartea, pentsaerak... gero eta arinagoak, axalagoak direla uste dudanean, bertsolariek gero eta landuago, finduago, sakonago eta ederrago agertzen diz-

kigute beren iritziak, pentsaerak. Bertsolariak (horietako asko, zorionez) hausnartzen duten gizon eta emakumeak iruditzen zaizkit, gizarteari zer esana badutenak, esaten diotenak, esaten dakitenak, eder esan ere.

Igandean gozatu egin nuen. Nazaretarrak bazuen Maialen izeneko lagun handia (Magdalako Maria), bere gizon begiak gizarte hartako

itxikerian, mundu desberdin batera zabalarazten zizkiona, ziur. Maialenek ere eman zuen zer pentsatua. Eta bestelakorik diotenei hau esango nieke: Maialenek ez zuen irabazi txapela emakumea delako; ezta plazan urteak daramatzalako; ezta dagoeneko zor zitzaiolako ere; igandean, tarte handiarekin, erakutsi zuen bertsolaririk onena dela, eta horregatik irabazi zuen, one-

na delako.

Igandean, begiak bakarrik ez, ahoa ere zabal utzi ziguten bertsolariek. Eta begirada ere bai. Eta poz bat ere bai: azalkeria gaintitzea posible da. Gauzen sakona ikustea ez da ezinezkoa. Eskerrik asko bertsolariei! Eskerrik asko han, guri tokia gozo prestatu ziguten aiar eta oriotarrei (lanean egon zirenei).

Gure sermoi asko baino hobeak entzun genituen eta entzuten ditugu plazetan. Bizitzan hausnartzeko tarteak hartzeak on egiten baitu, antzeman egiten baita, antzeman egin baitzitzaien!

UNAI MANTEROLA

**Maialen,
zeinen handia
Maialen.
Hamar urte
hauetan neska
honek gauza asko
hobetu ditu**

**Igandean,
begiak bakarrik
ez, ahoa ere zabal
utzi ziguten
bertsolariek.
Eta begirada
ere bai**

TXOKOAK ETA JENDEA

*Aia eta Orio
estuago
lotuta*

Azaroaren 28an ezkondu ziren Eneritz Erkizia eta Igor Iturain, baina Eneritz oriotarra izanik eta Igor Aiako alkatea, zoriontzearekin bakarrik ezin gara konformatu.

Argi dago, lehen ere horrela egiten bazuen ere, hemendik aurrera arreta berezia izango duela Aiako alkateak Orioko gauzekin eta beste hainbeste gertatuko zaiola Eneritzi Aiakoekin. Txori txiki batek kontatuta, badakigu primeran pasa zutela ezkontzan. Zortetik onena opa diegu biei hemendik.

2007ko Udal hauteskundeetara koalizioan aurkeztu baziren ere, gaur egun Orioko Ezker Batuak eta Aralarrek ez dute inolako loturarik. Horregatik, banan-banan elkarrizketatu ditugu Iñaki Garcia eta Iturain. Legealdi erdian gaudela jakinik, udaletxera zer eraman duten galdetu diegu.

MIKEL ARANZABAL

2007ko maiatzaren 27an, udal hauteskundeak izan ziren eta, lehenengoz, Ezker Batuak eta Aralarrek zinegotzi bana lortu zuten, koalizioan aurkeztuta. Ez Iñaki Garcia ezta Iñaki Iturain ere, ez ziren zerrendaburu, baina, aurretik zeudenek karguari uko egiten joan ahala, berei tokatu zitzaizen udaletxeko betebeharra. Hasiera batean, gustura ari ziren biak elkarlanean, baina, pixkanaka, lan ildo ezberdina zutela agerian geratu zen eta, orain, bakoitza bere aldetik dabil Udalean.

Biekin banan-banan izan gara eta, biei galdera berak egiten saiatu garen arren, bakoitzak baditu bere berezitasunak, eta galdera batzuk ezinbestean dira desberdinak.

Hala ere, erantzunak irakurrita, uste baino antza gehiago dutela konturatuko dira. Bietako inor ez da busti banatzeko arrazoien inguruan, biek ere gogor salatu dute EAJren udal politika eta hurrengo hauteskundeetarako Ezker Abertzalea izango dela gakoa iruditzen zaie biei.



KARKARA

IÑAKI ITURAIN ETA IÑAKI GARCIA | ZINEGOTZIAK

Aralar eta Ezker Batua: bakoitza bere bidetik, errespetuz

IÑAKI ITURAIN | ARALARREKO ZINEGOTZIA

“Balio handia duten gauza txikietan nahi dut eragin”

Lehenengo aldia da Aralarrek zinegotzia duela Orioko Udalean.

Aurreko lau urteetan Udalak egindako lanarekin ados ez zegoen jendea bildu eta talde bat osatu genuen, ezkerreko ikuspegitik gauzak aldatzeko asmoz.

Gero etorri ziren forma eman zioten bi alderdiak, Ezker Batua eta Aralar, eta, azkenean, beren izenean aurkeztu ginen, baina ez gara partiduetan afiliatuta edo militante dabilen jendea.

Ezker Batuarekin koalizioan aurkeztu zineten, baina jakina da orain bakoitza bere aldetik zoaztela.

Ustekabea izan zen 2007ko hauteskundeetako emaitza: boto asko eta bi zinegotzi lortu genituen. Era berean porrota ere izan zen, argi geratu baitzen jendea prest zegoela izena emateko, baina ia inor ez lana egiteko.


Hauteskundeetarako elkartu ginen, baina bestela ez dugu izan aparteko erlazio berezirik. Geroztik, bakoitza bere bidea egiten gabiltza. Beste alderdiekin dugun erlazio berbera dugu gure artean, errespetuzkoa, eta bakoitzak bere iritzia du kontu bakoitzean.

Beste herri batzuetan ere bi taldeak batera aurkeztu ziren eta ez du funtzionatu.

Hauteskundeetarako aurkeztu zenuten programatik zein helburu bete da? Zeinez?

Helburuetako bat hauteskundeetako emaitzarekin bete zen, oposizio sendo bat antolatzeke aukerarena, sei zinegotzi izango zituen.

Hasieran gauza askotan ez zuen funtzionatu, esaterako, Munton egingo den azalera handiko dendaren



Euskara eta Hezkuntza batzordeko burua da Iñaki Iturain.

KARKARA

kasuan. Guk kontrako botoa eman genion, alde batetik, uste dugulako horrelako dendak handiak herriko dendariei kalte handia egingo diela, ondorioz, herriari, eta, bestetik, haiek planteatzen duten kontsumo eta aisialdi eredua ez ditugulako konpartitzen. Hortik aurrera, demokraziak baditu bere mugak eta erabakitakoa errespetatu behar da.

Beste batzuetan, ordea, oposizioak funtzionatu du eta EAJri aurre egiteko balio izan digu. Bi adibide garbi azalduko ditut. Batetik, frontoiak orduak kontatuta zituen eta San Joan ermita azpian beste bat egitea aurreikusten zen.

Orduan, frontoia berritzea oposizioak atera zuen aurrera, agintean dagoen alderdiaren kontra. Bestetik, gaztetxearen kontua ere hor dago: EAJk adierazi du berak ez duela babesten gai hori, baina EAE, Aralar, EA eta Ezker Batua batu gara, uste dugulako zor zaiola aukera hori gazteriari eta, batez ere, gaztetxea Esnal hotelean kokatzeko aukerak ez lukeelako arazorik sortuko kokapen aldetik eta ia ez duela diru inbertsiorik eskatuko, gainera. Seguru nago gazteek ez dutela lokala egonean egoteko erabiliko eta herriari kultureskaintza zabala eskainiko diotela; zabala eta sentsibiltate guztiei irekia.

Zer da Aralarrek bereziki landu duena?

Aralarrek Aizperroko industrialdea eta arraunera-ko eraikin berria bultzatu ditu, gainontzeko alderdiek bezala; eta baita Dikean egingo diren babestutako etxebizitzak alokairukoak izatea ere.

Baina nire zinegotzi aldiak zerbaitetan arrastoa uzteko-tan nahi nuke gauza txikietan izatea, txikiak baina balio handia izan dezaketenak herriaren ibilbidean, herritarren elkarbizitzan eta ongizatean. Adibidez, bultzatzen ari naiz bidegorria egitea, Diketik zubiraino eta kiroldegitik Bikamiotara. Herri barruan oinez eta bizikletan ibiltzea bultzatu behar dugu, oinezkoentzako kaleak eta guneak eta bidegorriak sortuz.

Ni, batez ere, kulturaren mundutik nator eta hor eragin nahi dut: herriaren oroimena lantzeko balio duten ekitaldiak antolatu, Oteizarena, orain Fabian Loidirena; Francori emandako Orioko seme kuttun izendapena bilogabetzeko mozioa aurkeztu; herrian bizi diren etorkinen kulturen ezagutza zabaltzeko eta elkarkidetzaz sustatzeko festa antolatu; hildakoen berri ematen duten kaleko bi panelak bideratu, egunkari jakin bat irakurtzen ez dugunok ere zein hil den jakin ahalizateko; urteko kirol-zalearen festa sortu...

Euskararen erabilera jaitsi da Orion. Euskara batzordeburu zaren aldetik zein da zure erantzukizuna?

Egin dugu propio bilera bat gaia aztertzeke. Arrazoietako bat garbia da, herria hazten doan heinean etorkin kopurua ere gora doa eta haien erabilera ere neurtu da kalean.

Oriotarron hizkuntza erabilera ohitura, seguruenik, ez da aldatu, belaunaldi gazteak askoz prestatuago daude eta jarrera aldetik ez dut uste euskarakinongo arazorik duenik Orion. Kanpotik etorri zaizkigunak ekarri egin behar ditugu gure hizkuntza ere ikas-tera. Horretarako, bultzatu behar duguna da euskaraz kultura bizia eta ekimen erakargarriak sortzea.

Arazo larria euskarak, abertzaletasunak, presentzia edo botere instituzionalik ez duen lurraldeetan du, Nafarroan eta Iparraldean batez ere. Hor doa euskara gainbehera eta hor orain artekoa baino bide egokiagoa asmatu beharra dago, bestelajai dugu.

Zein iritzi merezi dizu EAJ-ren agintealdiak?

Udalaren antolaketa sei alderdi egotea onerako da, aniztasunak politika aberastu egiten baitu. Batez ere gehiago absoluturik ez izatea da ona, ez EAJk eta ez beste inork, bizio asko hartzen baitira eta, alde horretatik, legealdi honetan gauzak pixka bat aldatu dira.

Alkatearen kontra ez dut ezer, beraz, kritika politikoa egingo dut.

Batzordeak eratzerakoan, Hirigintza batzordeari Gertutasuna, Giza Balioak eta Herriaren Antolaketa izen ponpoxoa jarrizion. Xelebrea iruditzen zait, zeren gertutasuna eta giza balioak batzorde guztietan eta herrian landu beharrekoak dira eta, gainera, iruditzen zait gehiago dela eratu duen diskurtso bat. Baina askotan huts egiten da, batez ere gertutasunean. Esaterako, azken lau batzordeetara EAJ ez da agertu eta oso gai garrantzitsuak tratatu ditugu: arraun elkartearen hitzarmena, zaborraren bilketaren gaia, merkataritza gaiak... Beste gai batzuk ere atzeratzen ari dira, esaterako gaztetxearena, eta horretan ere ez zaie gertutasunik ikusten, justu kontrakoa.

Kulturan asko murrizten dute euren ikuspegia. Gehiegi begiratzen diote gastrono-

miari, edo kirolari, eta horien inguruan egiten dituzte proposamenak eta eskaintzak, eta gainontzeko alor asko herren geratzen dira. Indar gehien duen alderdiak ikuspegi zabalago bat izan beharko luke.

Bestetik, Orioko Plaza aldizkariaren erabilera partidista egiten dute, euren irudia aupatzeko. Baina aldizkari horrek ez du zentzurik Orion. KARKARA orain 20 urte-rik hona duen espazioa hartu nahi du, baina ez du balio, jendearen parte hartzea eta iritzi ezberdinak azaltzea baztertzen baitu, ez da kazetari-entzako edo pentsalari-entzako eskola eta, gainera, ez du eztabaida publikorik sortzen. Gastu handia da herriarentzat eta susmoa dut irakurleen artean ere ez duela harrera onik.

Irakurri duzu Ezker Abertzalearen eztabaidarako txostena?

Prentsan zetorrena eta haren inguruan esandakoak irakurri ditut. Dokumentoa- ren ildo nagusiak ezagutzen ditut eta iruditzen zait barne borroka bat dutela beren artean. Badaude oraindik betiko bideari eutsi nahi diotenak eta, aldi berean, asko daude iritzia aldatu dutenak, sinisten dutenak bide horrek samin onartezina sortzeaz gain, helburu politikoak lortzeko ere kaltegarria dela eta beste bide batetik abiatu nahi dutenak. Alde horretatik optimista naiz.

Esperientziak erakutsi du borroka armatuak ez gaituela eramango askatasunera eta Herri honi eman behar zaio aukera bestelako bide bat urratzeko.

2011ko udal osaketaren kiniela egiten ausartuko zinateke?

Ez naiz kiniela zalea, baina, Batasunak bizi duen egoera zaila konpontzea izango da gakoa.

Horren ondoren ez dakit zein elkarketa egingo diren, baina espero dut ordurako egoera politikoa normalduta egotea.

OPOSIZIOA

“Hasieran gauza askotan ez zuen funtzionatu, esaterako, Munton egingo den azalera handiko dendaren kasuan. Beste batzuetan, EAJri aurre egiteko balio izan digu”

ARALARREK BULTZATUTAKOAK

“Aralarrek Aizperroko industrialdea eta arraunerako eraikin berria bultzatu ditu, gainontzeko alderdiek bezala; eta baita Dikean egingo diren babestutako etxebizitzak alokairukoak izatea ere”

EAJ-REN AGIENTEALDIA

“Orioko Plaza aldizkariaren erabilera partidista egiten dute, euren irudia aupatzeko. Baina aldizkari horrek ez du zentzurik Orion”

2011KO HAUTESKUNDEAK

“Batasunak bizi duen egoera zaila konpontzea izango da gakoa”



IÑAKI GARCIA | EZKER BATUKO ZINEGOTZIA

“Alkateari aurre egin behar zaio herriaren alde egiteko”

Lehenengo aldia da Ezker Batuak zinegotzia duela Orioko Udalean.

Hauteskundearen garaira jo behar dugu. Ondarroako Udalean eserlekua lortu nuen, han ere Aralarrekin batera, baina Ezker Abertzalearen boto nuluek gehiengo absolutua lortu zuten, uko egin nion karguari. Gauzak horrela, Orioko komertziantek deitu zidaten Orioko Udalean lekua nuela esanez, Ezker Batuko batek utzi egin zuela eta besteak, berriz, lan arazoengatik ezin zuelako. Egoera baloratu nuen eta ni naiz orain zinegotzi. Itxuraz, Orion hainbat arazo urbanistiko zeuden eta horiei aurre egitekoan etorri nintzen.

Aralarrekin koalizioan aurkeztu zineten, baina jakina da orain bakoitza bere alde-tik zoaztela.

Horri buruz baditut gauzak esateko, baina uste dut ez dela une egokiena, udaletxean dugun egoera ezkerzaleontzat oso aproposa baita. Beraz, orain trapu zikinak aire-ratzen hastea ez dela inoren-tzat on uste dut.

Euskal Herri mailan alderdiak, nahiz eta ados egon, ez gara gai eskutik helduta joateko. Orion, ordea, bai. Aralar, EA, Ezker Abertzalea eta Ezker Batua alkartuta gaude adostasuna dugun kontuetan aurrera egiteko. Hortik aurrera, koalizioan aurkeztu ginen bi alderdion arazoak geronek konpondu behar ditugu, bestela, bata bestearen oztopo izango baikara.

Hauteskundeetarako aurkeztu zenuten programatik zein helburu bete da? Zein ez?

Hori zaila izaten da. Nahiko nuke jakin oposizioan



Komertzio batzordeko burua da Iñaki García.

KARKARA

dagoen zein alderdik lortzen duen bere helburuak bete-tea. Guk zer bete dugun? Bada, gauza gutxi esango nuke.

Orioko Udalaren kasua berezia dela uste dut. Legealdiaren hasiera zuzena iruditu zitzaidan, alkateak beste alderdiei ere komisiok eman zizkigun, baina, denbora pasa ahala, praktikan ez da gertatzen. Irudi polita besterik ez zuen eskaini nahi alkateak.

Lehenengo momentutik ikusi da alkateak ez duela beste alderdiekin kontsentsurik bilatzen. Baina txollosa bukatu zaio, ezkerreko teldeok bat egiten hasi gara eta orain EAJk ezin du nahi duena egin. Hori

behintzat lortu da eta gu ere tartean gara.

Oraindik 18 hilabete gertatzen dira hurrengo hauteskundeetarako eta ezkerreko blokea edo oposizioa osatzen dugunok ondo jokatu behar ditugu gure kartak.

Ez zaude batere gustura, beraz, EAJren gestioarekin.

Egunero gertatzen diren edo gerta litezkeen arazoak konpontzeko ez gaituzte aintzakotat hartzen eta betatu egiten gaituzte zuzenean. Berdin gertatzen da Bisiguaren Festarekin, txuletarenarekin, Orioko Plaza aldizkariarekin, hondartzako beste aldeko zabalgunean egin zuten jaial-

di harekin...

Abendua iritsi da, aurrekontuak eztabaidatzen beharko genuke, eta oraintxe jaso dugu zirriborroa. Iaz ere, udalbatzarraren bilkuran bozkatu baino 15 egun lehenago eman ziguten zirriborroa eta horregatik bakarrik jada ezetz esan nion. Lotsagarria da EAJ egiten ari dena.

Horren aurrean, jende progresista eta ezkerrekoa bildu gara aurre egiteko; eta gehien-go gara. Hori ondo bideratzen jakitea da orain garrantzitsua. Pentsa, aurrekonturik ez bada onartzen eta 2009ko ekindarrean jarraitzen badute, alkateak bere ardura onartu eta dimititu egin beharko luke. Nik behintzat eskatuko diot.

Ezkerreko blokearen oinarria ezarrita, zentsura mozio bat posible ikusten duzu?

Zentsura mozio bat? Urte eta erdi geratzen da hurrengo hauteskundeetarako, baina horretarako pausoz pauso joan behar da. Alkateari mozioa aurkezteak arazoak ere ekar ditzake, baina, errealistak izanez gero, dena da posible. Ni pertsonalki, prest egongo nitzateke mozioa bultzatzeko, baina aurretik hainbat gauza adostu behar dira beste alderdiekin eta, argi daukat alkateak, bere jarrera aldatzen ez badu, kargua kolokan duela. Oposizio alderdien artean hitzarmen bat sinatzearen aldekoa naiz, legealdiaren hasieran egin genituen akatsak ez errepikatze. Hitzarmen horretan elkarrekin bultzatu nahi ditugun gaiak sartu beharko lirateke: gaztetxea, Muntoko plan partziala, arau subsidiarioak, Orioko Plaza aldizkaria kentzea...

Alkateari aurre egin beha-

rra dago, bere jarrera itxia ikusirik. Urriko plenorako mozio batzuk aurkeztu ziren bileran bozkatzeko eta berak ez zituen gai ordenean jarri. Eskerrak oposizioko alderdiok behartu genuen horiek bozkatzera, bestela horgeratuko baitziren airean. Gainera, azaroan ez zuen plenorik deitu eta aurrekontuak ere oraindik bozkatu gabe daude.

Udaletxe honetan ez dago talanterik lana elkarrekin egiteko eta horrek bere ondorioak ekarriko ditu. Hemen gertatzen diren ulergabeko gauza guztiak herriak jakingo baliatu, bati baino gehiagori beldarririk tirako liokete alderdiko zuzendaritzak.

Irakurri duzu Ezker Abertzalearen eztabaidarako txostena?

Autonomiako hauteskundeetako emaitzak ikusita, nahi gabe, leiho bat ireki da Euskal Herrian bakea lortzeko. Ezker Abertzalea indarra galtzen ari zen eta indar hori beste alderdi batera zihoan, Aralarra. Horrek zer pentsatua eman dio Ezker Abertzaleko askori, lehendik ere gertatzen bazen ere. Orain konturatu dira instituzioetan egoteak zenbateraino balio duen, betez ere, politika egin nahi bada, eta horren aldeko apustu garbia egin dutela iruditzen zait.

Bestalde, penaz ere begiratzen diot gaiari, hausnarketa hori nik neuk orain 40 urte egin bainuen. Nik borroka armatua praktikatu dut, horren alde egon naiz, eta oraindik ez diot erabat uko egiten, baina iritsi da momentua funtsa osoa galdu duena eta erabiltzen duenaren kontra bihurtzen ari da. Bide horretatik ezin da ezer lortu aurrera egiteko eta biktimak utzi ditualde bietan. Jendeak ahaztu egiten du diktadura bat egon zela, ahaztu egiten da baita eskolan ere euskaraz egitea debekatua zegoela. 16 urterekin espetxean sartu ninduten, oraindik horretarako adinik ez nuenean. Horregatik diot biktimak bi aldeetan daudela.

Dokumentua dela-eta, poztan nau Ezker Abertzaleak bide baketsuari eustekak denoi irekiko baitizkigu lanerako ateak, eta planteamendu horrekin urrutira heltzea espero dut. Denok dakigu EAE Legebiltzarrean egon balitz, Patxi Lopez ez litzatekeela lehendakari izango.

Oso zaila da aurrera pausoak ematea eta, aldiz, oso erraza atzerantz egitea. Horregatik, esfortzu handia eskatzen du gaiak, ez Ezker Abertzalearena bakarrik, guztionak baizik.

Zapaterok bakea lortzeko aukera txikiena izango balu, bera izango litzateke lehena aurrera pausoa ematen, baina ezin gara zain egon.

Eta ez dakigu, baina, puntu horretara iritsita, agian, dagoeneko pauso horiek ematen ari dira bi aldeak, guk ezer jakin gabe.

2011ko Udal osaketaren kiniela egiten ausartuko zinateke?

Kinielak adituenak ere ez ditu asmatzen Euskal Herrian; baina, jolas bat denez, busti egingo naiz.

Dena Ezker Abertzalearen baitan dago eta, hauteskundeetan egotea lortzen badu, gehiengo izango du; gehiengo ez bada, alkatetza lortuko du besteon babesarekin.

Gauzak horrela jarraitzen badute, inoiz jakin ezin den arren, uste dut Orioko hurrengo Udala ezkerrekoa izango dela eta benetan pozgarria da hori. EAJ bigarren indarra izango dela uste dut eta, bali-teke, PSOEek eta EAK ez izatea ordezkaririk.

Ezker Batua mantentzea espero dut eta Aralarrekin, berriz, ez dut oso garbi. Bali-teke mantentzea, baina oso zaila ikusten dut Ezker Abertzaleak Udalean egotea lortzen badu. Posible da igotzea ere, baina oso zaila da.

Hala ere, askotan jendeak ez du baloratzen zinegotziek egindako lana. Boto asko fijoak dira, batez ere, EAJkoen jarraitzaile direnak. Horrelakoak hutsak dira eta ez dute lan politikoa baloratzen.

ELKARLAN POLITIKA

“Euskal Herrian alderdiak, nahiz eta ados egon, ez gara gai eskutik helduta joateko. Orion, ordea, bai. Aralar, EA, Ezker Abertzalea eta Ezker Batua elkartuta gaude adostasuna dugun kontuetan aurrera egiteko”

ZENTSURA MOZIOA

“Urte eta erdi geratzen da hurrengo hauteskundeetarako, baina horretarako pausoz pauso joan behar da. Errealistak izanez gero, dena da posible”

BORROKA ARMATUA

“Nik borroka armatua praktikatu dut, baina iritsi da momentua funtsa osoa galdu duena eta gure kontra bihurtzen ari da”

2011KO HAUTESKUNDEAK

“Ezker Abertzaleak gehiengo lortuko du eta bestela besteon babesarekin eskuratuko du alkatetza”



ADARRETATIK HELDUTA

Gehienok bekatari

Gure gazte denboran auzoko denda txikietan egiten genituen erosketak. Ia denetik egoten zen: *Pryca* izenarekin ditugun erako saltokiak ziren.

Orduan, erosketak norberaren etxetik hurbilegiten ziren, herriko eta auzoko dendetan. Eta ia beti denda berean erosten zenez, erosleak eta saltzaileak harreman estua izaten zuten.

Halako harremana sortzen zen, non askotan zorretan lagatzen genuen erosten genuena, eta astebukeraren edota inoiz hilaren bukaeran ordaintzen ziren –lantokitik dirua jasotzen zenean edo senarraitsasotik etortzen zenean–, dendatik eramandako gauzak. Goikokalen guztiok ezagutzen genuen elkar, eta produktua zorretan etxera eramateko ohitura oso hedatua zegoen garai hartan. *Apuntatu* esan, eta dendatik alde egiten zenuen, zorroa goraino ondo beteta.

Gainera, auzoko dendan guk geuk eskatzen genuen erosi nahi genuena. Dendariak denon bistan zituen salgaiak, erakusmahaiaren atzeko apaletan, eta guk, bezerook, eskatzen geniona ematen zigun. Eta produktuen arabera, erosi baino lehen ukitzeko eta baita dastatzeko ere aukera bazegoen: ikustearekin ez baitzen aski; hori dena, ezingiro jatorragoan egiten zen. Konfiantza osoz, gainera. Elkarren arteko harreman onak,



EUKENI SANTAMARIA
LANGILEA

Produktuaren arabera, erosi baino lehen ukitzeko eta baita dastatzeko ere aukera izaten genuen garai bateko denda txikietan

seinale. Bada, joaten garen tokian ondo har gaitzatela, denoi gustatzen baitzaigu. Guri harrera ona egitea eta gurekin jator jokatzela, alegia, eta azken hori denda txikietan soilik ematen da, nire ustez.

Bestetik, badirudi, orain askeagoak garela erostrakoan, apaletatik produktua geuk hartzen ditugulako. Bai-

na ez. Berek saldu nahi izaten dutena muturraren aurrean jartzen digute-eta: eskura-eskura jarri ere gure begien aurrean; gainontzeak, goiko zein beheko apaletan, edota besteen atzealdean; gure bistatik urrun, erdi ezkutaturik. Gainera, askotan, behar ez duguna ere inkontzienteki hartu eta karrora botatzen dugu. Gasta handituz horrela. Zenbait produktu dastatzeko aukera ere badago; baina soilik saldu nahi digutena: promoziotan eta horrela.

Gure herriko zenbait dendatan bigarren edo hirugarren belaunaldiak hartu izan balu dendako martxa, aurreko guztiak dakarrena, azkenean, denda itxi beharra da, bezero faltaz; betiko itxi ere. Bada, gero eta jende gehiagok erosketak egiten baititu –gauza batengatik edo bestearengatik– *Pryca* edo horrelako merkataritza gune handietan; eta herriko denda txikiei gero eta zailago egiten zaie horiekin lehiatzea eta etekinak ateratzea, duin bizi-tzen jarraitzeko.

Ondorioz, herrian, denda txikirik gabe, kaleak jenderik gabe gelditzeko arriskua dago eta, horrela, herriak bizia galtzen du.

Beraz, oztopoak jarri ordez, erraztu diezaiegun herriko dendei euren bizimodua aurrera atera dezaten, eta erosleok ez gaitezen erori hain erraz eta hain maiz merkatu handi eta boteretsu horiek ezarritako dotrinan.

NIRE HONETAN

Euskaratik eta euskaraz

Le Journal du Pays Basque, Noticias de Gipuzkoa, El Correo español –el pueblo vasco–, Diario de Navarra, El Diario Vasco, Diario de Noticias de Álava, Sud ouest... Euskal Herrian gehien erosten diren egunkarietan oso euskara gutxi aurki daiteke. Nahiz eta batzuk vasco/basque hitza gora eta behera erabili –harro-harro askotan–, alfer-alferrik izaten da, ez baitute hitzik jartzen ez *vascon* ezta *basquen* ere. Badira izena bera euskaraz jarri eta euskararekin bestelako atxikimendua aditzera eman nahi dutenak ere: Gara, Deia... baina, horietan ere, kale; euskarari tarte txikia uzten diote eta orrialdetan ondo miatuz baino ez dugu egiten topo gurearekin. Marka da gurea, gero; gehienok erdaraz jasotzen ditugu eguneroko albisteak euskararen herrian, baita euskaldunak garenok ere.

Herri hau sortzen segi dezagun euskaratik ta euskaraz agindu zigun Maialenek igandean, txapelaren zatia guri lagata.

Kendu egin ziguten euskara hutsean genuen periodiko bakarra: gezurren artean egia; *Euskaldunon Egunkaria*.

Zaharra itxi ziguten, egia; baina hortxe daukagu *Berria*.

ANA GONZALEZ DE TXABARRI



ELEKTRAGAILUAK ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Juan Albizu

Alesan, 6 - Tel/Fax: 943 83 12 49
20809 ORIO



Garraio frigorifikoa

NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA



Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

MOILA BAZTERRETIK

BECatua



JOKIN SALSAMENDI

Moila bazter honetan denbora azkar doa. Azkarregi. Aldaketa klimatikoaren eragina dela diote adituek. Duela hamai-kaurte neguak luzeagoak zirela eta baita urteak ere. Argi dakusagu, ilargiak pasa aha-

la, urteak motzago eta flekilloa atzerago.

Horrela pasa zaizkigu azken lau urteak ere, di-da, Egañak azken txapela irabazi zuenetik. Bertsolaritzak BECa konkistatu zuenetik. Eta, oraingoan bai, joateko aukera izan dut hiru lagunekin eta autobuskada herritarrekin. Anaiaren lanaren fruituak dastatzera (berak eman zidan gonbita) eta bihotzari igurtziak ematera. Tarteka negar pixka bat egin beharra dago, disimuluan behinik, ze gizonok ere sufritzen dugu isiltasunean. Eta igandeak denerako eman zuen. Serio jarri gintuzten askotan, algaraz besteetan, barre txikia dargula sarri eta Maialenek ospitalean malkoak betiletan dantzaz. Benetan diotsuet gozatu egin nuela, genuela,

zenutela eta... datozenak gozatuko dutela.

Txundigarria izan zen saioa eta ikaragarria giroa. Euskal Herriko bazter guztietatik etorritako jendea, 15.000 lagun, denak isil-isilik, gero denak txaloka eta, ondoren, eskuak altxatuz olatua egiten. Eta olatuari haizea ematen Orioko minitxaranga, jendetzaren aurrean brankaz Perona, Sarasola eta Iboni. Tsunamia puzten. Barakaldoko olatuaren zipriztinak moila bazterreraino heldu dira. Torrotxo *chapeau!* Eta baita Errikotxiako langile umilei.

Azkenean, onenak irabazi zuen, Maialenek, merezita. Denbora azkar pasatzen baita, ez alferrik, eta iritsi da, kostata, Clementeren faborittoa zen zarauztar bertsolari

Txundigarria izan zen BECeko saioa, eta ikaragarria giroa.

Barakaldoko olatuaren zipristinak moila bazterreraino heldu dira. Torrotxo chapeau! eta baita Errikotxiako langile umilei.

handiak erreleboa emateko garaia. Izagirrek... ez, ez hori... Egañak.

azkue
Tf: 943 13 04 38

Pinturak ELKAR
pintura eta paperatze lanak zoru leunketa
Añenda/No Industrialdea
943 43 08 45 / 618 60 25 35
ZARAUZ

iñaki argazkiak caperochipi
ezkontzeka asmorik bai?
www.ikapero.com/ezkontzak
659378751
ikapero@ikapero.com

aroztegia MIRANDA
tarima, ate, leiho, eskalera... behar diren arotz lanak egongo ditugu
Urdazeta bidea, 1 - 460 42 32 70 - ZARAUZ

islada
BESERIKO ZARAUZ
Sheila De Miguel - Saray Cendoya
Bakearen kalea, 2 beheko Oriu 20810
Tf: 943 133 896
e-maila: isladario@hotmail.com

uranga
autozerbitzua
Aliprox
Eusko Gudari kalea 13-15 ORIO
943 63 38 75

Orioko Herri Ikastola
Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokolkastola.net

PERTSIANAK
A K O M A Z
Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...
Tel: 943 13 23 01 Mugikorra 600 70 52 27

argine
www.lesonet.com/argine
Tel: 943 13 48 89
25eko DESKONTUA FAMILIA UGARREN TXARTELAREKIN



AIRIDATZA moda
Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremintak
fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 83 36 Eusko Gudari, 5



ZAPATA KONPONKETAK
Lanorainetan: 09:00 - 14:00 eta 16:00 - 19:00
Laruntzetan: 09:00 - 13:00
Herritako enpresetan, Orio

TANATORIO ZARAUTZ
EUROFUNERARIAS TALDEA
Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldiaroko zerbitzua
- * Belatorio gelak
- * Koroak, eskalak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz
Tel: 943 89 49 37 / Fax: 943 89 49 43
e-mail: harnepi@harnepi.net



A&E
The Academy of English

Justo kalea 3, Zarautz | Ibañ Ondo pl. 8 Orio

Tel. 943 00 42 44
943 83 51 91

ITSASADARRA, S. L.
Jose Angel Iradi Udabe
aseguru artekaria
finika administratzailea
gestoria
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 96 itsasadarra@itsasadarra.com
Ibañ Ondo 4, behea. 20810 Orio



Nahikari
HAIR DENDA

Amatxile kalea, 35
28100 - Orio
Txf: 943 83 36 30
www.nahikari.es

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu. ☒

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe ☒

Lan txukuna eta merkea ☒

Tfnoa: 943 83 59 00

tel/fax: 943 89 00 69
Bikola kalea, 4. 20800 ZARAUTZ



URBIDE
ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA, BAINU ERAKUSKETA
Presupuestoak konpromisorik gabe

edariategia
ANTILLA
jaleaketa

Nahikari kalea, 2 - Tel. 943 83 20 20

RAMIRO
argazkiak
943 83 10 48
610 697 668
www.fotoramiro.com



AMILIBIA
CENTZIO LAK, S. L.

kinol partuetan proiektu eta instalazioak

gri mailako lehiaketarako arrau-ontziak

Olasnegagaitza auzoa, 52
34 943 83 08 29
faxa 34 943 89 40 81
amilibia@amilibia.com
www.amilibia.com

ARKAITZ
Taberna

Pintxoak,
plater konbinaluak
eta ogilarleko mundialak

ABESLARI KALEA, 4 TEL: 943 83 16 57

bodegasERRASTI, S. L.



Eskualderako banatzailea
Zudugarai, Getariako txakolina
Ilagares, ardo gorri nafarra
Rodegas Gailur; Señorío de Lurgain
Gailur eta Ardanegi,
Arabar Errioxako ardoak

Eusko Gudari, 46 ORIO • 943 83 03 86 / 83 50 52 • E-posta: bodegaserrasti@euskalnet.net



Purra, purra, purra...

Munduan plaza asko dira argazkian ikusten dugunaren tankerakoak, handiak eta usoz betetakoak, alegia. Horietako bat Zaragozako Pilarreko Amaren basilikaren aurrean dagoena da, argazkian ikusten dena.

Duela 43 urte, 1966an, aterata zieten argazkia oriotar horiei. Argazkilaria, herrikoa zen, Sánchez

Zaragozara joan nahi zutenentzat autobusa jarriko zuela agindu omen zuen Sánchezek, eta baita *Pilarika* egunerako jarri ere. Herritar asko joan zen, autobusa beteta Mari Karmenek esan digunez.

Eguna han pasa eta, *Pilarika*ko jaiak nolakoak ziren ikusi eta gero, berriz ere Oriora itzuli ziren. Egunpasa polita izan zela esan digu.

Argazkian goian eta

ezkerretik hasita, Valladolideko Rosario, Mari Kruz Ramiro, Valladolideko gizon ezezaguna, Trini Gurrutxaga, Joxe Manuel Gurrutxaga. Lurrean jarrita eta ezkerretik eskubira Trini Genoba, Euxebe Genoba eta Mari Karmen Gurrutxaga.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA:
MARI KARMEN GURRUTXAGA

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA

Allianz 

Marigre Zaldúa
aseguru agentea

Ibai Ondo, 10 behe-oina
telefonoa: 943 13 47 60
faxa: 943 83 57 62
e-maila: zalduia@elcamino.org/gallien.es

KOLON TXIKI
abartegiak
jateak

 Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

FISIOTERAPIA Gaitortze Ardegi eta Nalolia Weraszen
NUTRIZIONISTA Gaitortze Ardegi

 **sinergia** investigacion
fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

KRITIKA



Kontzertu ederra eman zuten Deabruék sanikolasetan, plazan.

KARKARA

Infernuko beroa sanikolasetako epelean

Izugarria izan zen Deabruak Teilatueta talde tolosarrak sanikolasetan eskaini zuen kontzertua. Kanpotik jende pila bat erakarri zuen, baina herritarrok ere asko gozatu genuen berekin.

Kontzertua hasteko, bizkarra emanda jarri ziren eskenatokiko aurreko aldean ibiltzen diren hiruak. Buelta eman eta hara! Ubeda anaiak –Joni eta Imanol, baxujolea eta kitarra jotzen duena– betaurreko beltzak jantzita hasi zuten kontzertua. Energia handiz hasi ere,

eta, aurrera zihoan heinean, berotzen joan zen.

Baina momentu gorena, Aritz Mendieta abeslaria entzuleen artera jaitsi zenean izan zen: jendea erotu beharrean jarri zuen eta bata besteari bultzaka bukatu zuten.

Zuentzat, gaureuria egin du, zein da zein... bezalako kantuek jo gabe ez zituzten utzi, eta nahiz eta aurrez herrian ez zuten jo, herritarren erantzuna aparta izan zen. Kantu asko eta asko abestu zituzten bertan izandakoak.

Rockeroen izpiritua dute Deabruék eta beste talde baten kantak dioten bezala, infernurako autobidea irekitzen dute kontzertu bakoitzean.

Orion, gainera, faktore bat gehitu zitzaion. Bateria David Gorospe zarautzarra izan zen, atzetik jo zuen Skasti taldeko bateria-jole bera.

Titularrean esanda bezala, sanikolasetako larunbatean giro epela izan bazen ere, infernuko suaren beroa ekarri ziguten Deabruék. Eta kantari joan ziren...

IKER GURRUTXAGA

IKASLEAK IDAZLE



JOSEBA GUTIERREZ

LH 6. MAILA

Bertsotan primeran!

Zaraguetako LHko 5. eta 6. mailak bertso txapelketa nagusia jarraitzen ari gara.

Igandean, abenduaren 13an, finala izango da. Eztabaida handia dago gure artean, batzuk esaten dute Andonik irabaziko duela berriro, beste batzuk Maialenek kenduko diola txapela. Hau atera orduko jakingo dugu zeinek irabazi duen.

Nik lehen ez nuen ia bertsolaririk ezagutzen eta orain bertsolari asko eta askoren izenak dakizkit. Banekien txapelketa lau urtetik behin izaten zela, baina ez nekien nola sailkatzen ziren.

Iñaki Gurrutxaga da gure bertso irakaslea, bera ere Txapelketa Nagusian ibili da; finalaurrekoetaraino iritsi da, eta berari esker bertsolaritza gero eta gehiago gustatzen zait.

Guretzat Iñaki da txapelduna.

ARISTERRAZU
jatetxea

Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

Automóviles
ZARAUTZ

CITROËN ZERBITZU ORZAILA

Indagatu batzuk
eta 10.000.000
59.601

ZARAUTZ. Tel. 943 33 13 50

Carmen eta Txomin
ARRANDEGAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

Gabon
TABERNA

plater handiak eta pintxoak

Tfnua: 943 83 06 09

HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Momentu ederrena elkarrekin hazitako belaunaldia, saioa amaitzean, bat eginik oholtzan elkar hartuta ikusi nuenean izan zen. Andoni guretzako eredugarria, maisua da. Elkarrenganako maitasun sentimendua egon zen oholtzan eta emaitzan ikusi zen. Taldearen parte izatea gehiago estimatu dut lehen emakume txapelduna izatea baino. Herri honetan dagoen poz premia nabaritzen da, eta ilusioa pizten deneko batasuna ikusi zen atzo.”

**MAIALEN
LUJANBIO**

Txapelduna
Euskadi Irratia
2009/12/14

OSPAKIZUNA



20. urtea balkoitik ospatzen

Ekainean bete zuen KARKARAK 20. urtea, baina, dirudienez, ospakizun guztiak oraindik bukatzeko zeuden.

Sanikolasen hasieran, Udalak KARKARA taldekooi eman zigun itxaferoa pizteko ardura eta ez genuen hutsik egin. 20 urteko ibilbidean bertan aritutako ahal bezain beste lagun bildu eta balkoira igo ginen. Udaletxe barruan txanpainarekin topa egin eta Zingirara joan ginen bazkaritara!

ZORIONAK!



KARKARAREN laguntzaileei

2009. urtea amaitzen ari den honetan, ezin gaitezke ahaztu KARKARA Aia eta Orioko etxeetara iristea posible egiten duzuen guztiekin.

Erakunde publikoen diru-laguntzarekin soilik ezingo litzateke KARKARA aurrera atera eta, beste hogeitaz egin nahi ditugunez, bazkideen eta publizitatea jartzten duzuenen laguntza ezinbestekoa dugu.

Zer gutxiago hemengo zutabetxo hau zuei eskaintzea baino. Bihotz-bihotzez eskertzen dizuegu egiten duzuen ahalegina, eta are gehiago orain, azken urteko krisialdi ekonomikoak guztioi eragiten digunean. Eskerrik asko.

ardoak, urdaikiak, gaztak,
kontserbak, janari prestatuak

**etxeraino
eramaten ditugu**

KARKARA

943 83 09 84 alta Iertxundi, 36
ORIO

AHOLKULARITZA
Fiscalia, laborala, kontablea

Eugenio Garmendia

ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

jaletxea

logelak

gazteategi

Elkano auzoa
943 13 16 06

ALTXERRI

Karta eraberritua

*Asteburuan, eguerdi eta gauetan,
mema bereziak*

943830762

HAIZE & BERRI

taberna-jaletxea-kafetegia

Plater konbinatuak,
hokizak,
hamburgerak,
racionak,
eguziko menua...

eta etxera eramateko zerbitzua!

8. eta kaleak, 1. solairua - 48100 48111 - Astelehenetik ostirara

ITZIAR

kirolak

Tel. 943 83 31 03

ORAIN DELA 25 URTE

Aizkol apustua egin zuen 71 urterekin Arangurenberrik

Manuel Lasarte omenaldiz omenaldi ibili zen 1984ko abenduan. Hain zuzen ere, Fernando Artola *Bordari* egindakoan hartu zuen parte lehenik, Hondarribian, abenduaren 2an. Bigarrena, bi aste beranduago, hilaren 16an izan zen Zarautzen, *Zaldibiren* aldekoan.

San Nikolas egunean, Durangoko 19. azoka jarri zen martxan. Urte horretan Antonio eta Juan Kruz de la Fuente oroitu zituzten, *Los plateros de Durango* ezizenarekin ezagunak zirenak. Kanta asko idazteagatik egin zitzaizen omenaldia, tartean, *Hator*, *hator* kanta hain ezaguna. Urte hartan 90 saltoki jarri zituzten liburu eta disko azokan.

Abenduaren erdialdean, EHUKo ikasleek greba egin zuten eta unibertsitatearen ia zentro guztiak geldirik eduki zituzten. Matrikulen garestitzea eta beka eta EHUrentzako aurrekontuen jaitsiera izan ziren, besteak beste, grebaren arrazoiak.

SANIKOLASAK

Abenduaren 7an, goizeko 11:00etan sardinjara izan zen eta, atzetik, 12:00etan herrikirolak eta bertsolariak izan ziren.

Arratsaldeko 17:00etan sokamuturra izan zen. Iluntzeko 20:30ean, Zarauzko abesbatzak kantatu zuen eli-



Los plateros de Durango omendu zituzten Durangoko 19. azokan, beren kantutegiagatik

Euliojio Gurrutxaga Arangurenberrik, 71 urterekin kanako enborra mozteko saiakera egin zuen

Astigarraga herri egitea eskatu zuen biztanleen %91k

zan. Gaueko 22:00etan, Mikel Herzog bergararren orkestrak kontzertua eman zuen plazan.

Hurrengo egunean, Ama Sortzez Garbiaren egunean, 10:00etan meza nagusia izan zen. Ondoren, legatza saltsan prestatzeko lehiaketa jokatu

zen. Bazkalondoan, 16:00etan, futbol partida jokatu zen eta 18:00etan *Iratzarri* taldearen dantzaldia. Egunaren amaieran, 19etan, *Sabiron* orkestrak jo zuen.

Azken egunean, hilaren 9an, sokamuturra, ziklo-krossa, bertsolariak, estropadak eta antzerkia izan ziren ikusgai.

ERRONKA AIZKORAN

Euliojio Gurrutxaga *Arangurenberrik*, 71 urterekin kanako enborra mozteko saiakera egin zuen sanikolasetan eta egitea lortu zuen ordubetetik beherako denborarekin.

Jose Inazio Esnal *Errotaxarren* marka hautsi nahi zuen. Hark 65 urterekin 108 ontzako enborra 67 minutu eta 32 segundotan ebaki zuen, 1960an. Dirurik ez zuen jokatu Euliojiok eta J. I. Perona eta P.M. Ikazeta izan zituen laguntzen.

ASTIGARRAGA HERRI

Ordura arte Astigarraga Donostiako auzoa izan bazen ere, hilaren 30ean egindako kontsultan %91 herri independentea izatearen alde agertu zen. Herritarren %60ak hartu zuen parte bozketa hartan.

Oriok babesa eman zion Astigarragari, Orio ere antzeko egoeran egon zelako, Hiri Gutuna eskuratu zuenean, Donostiatik apartatu egin zelako.

JAIOTAKOAK

- Naroa Allo Campos, Orion, abenduaren 10ean.
- Jokin Garmendia Etxeberria, Orion, abenduaren 8an.
- Aimar Valentino Soriano, Orion, abenduaren 7an.
- Nathalia Torres Montoya, Orion, abenduaren 1ean.
- Xabier Agirresarobe Vicente, Orion, abenduaren 1ean.

EZKONDUTAKOAK

- Juan Jose Lizartza Arregi eta Miren Jaione Genoba Lertxundi, Orion, abenduaren 5ean.
- Rakel Delgado Diaz-Güemes eta Migel Durandegi Añorga, Orion, azaroaren 28an.
- Andres Felipe Torres Santacruz eta Sandra Maryori Montoya Rabe, Orion, azaroaren 27an.

HILDAKOAK

- Joxepa Markietegi Azpitarte, Orion, abenduaren 15ean. 75 urte.
- Joxe Manuel Mugika Azpeitia, Aian, abenduaren 2an.
- Joxe Bernardo Etxabe Goenaga, Aian, abenduaren 1ean.
- Xanti Segurola Agirre, Aian, azaroaren 30ean.

Joana Murgiondo
Aseguragailu-zerbitzuak

ASEGURUA

C C L
CARASA, SEGURO, LACORT Y CIA. S.A.

Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

Lizaso dekorazioa

Eusko Gudari, 48
Tf: 943 83 07 84 Fax: 943 24 57 15

LOBETXU JATETxea

Eusko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

LURDES
KARKARA

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

ARANTXA ARRILLAGA | MINTZALAGUNA ETA AISAKO IRAKASLEA

“Euskarak eman didana itzuli nahi diot euskarari, eta kitto”

Orain dela hilabete eta erdi inguru langabezian geratu ondoren, euskararen transmisioaren alde ahal duen guztia egiten ari da. Mintzalagun programagatik galdetzeko jo dugu Arantxarengana, baina askoz gauza gehiago kontatu dizkigu.

Nola edo zergatik egin zinen Mintzalagun?

Iaz hasi nintzen Mintzalagun programan, KARKARAN proposamena irakurri ondoren, eta euskaldun berri bakarrekin aritu nintzen. Euskara ikasten ari zirenei edo ikasi berri zutenei laguntzea zen helburu, inguruan euskaldunik ez eta praktikatzeko zailtasunak zituztelako.

Zergatik apuntatu nintzen? Denbora neraman euskaldun bezala zerbait egin nahi nuela pentsatzen, euskararen inguruan. Gero eta atzeritar gehiago dagoenez, haiei laguntzea nuen buruan eta Mintzalagun izatea ikusi nuen horretarako aukera egokiena.

Aurten ere ari zara?

Aurten hiru euskaldun zahar gaude eta lau euskaldun berri. Bi taldetan banatu gara: ni birekin aritzen naiz eta beste biak beste birekin.

Ez da beste munduko gauza ere, astean ordu betez elkartu eta hitz egin, kafea hartuz edo oinez gabiltzala...

Iazko esperientzia motza izan zen, berak nahiko ondo egiten zuen euskaraz eta, tira, ez zidan horrenbeste bete. Aurten, ordea, ez dute hizkuntza hain ondo ezagutzen eta ikasteko gogo bizia ikusten zaie.

Zergatik nahi dute etorkinek euskara ikasi?



Euskara ikasi nahi duten bi neska ere hartu ditu etxean Arantxak.

KARKARA

Denbora neraman euskaldun bezala zerbait egin nahi nuela pentsatzen, beti ere euskararen inguruan

Asko tabernan edo ostalaritzan aritzen diralanean eta tragoak eta euskaraz eskatzen dizkiete, beraz, integratuago egoteko eta lana hobeto egiteko nahi dute ikasi euskaraz.

Hala ere, asko harritzen nauena da Orion ez dela horren erraza euskaraz jar-

Hobeto erlazionatzeko ikasi nahi dute euskara, ez titulurik behar dutelako. Gozada da

dutea diotela. Ondo hitz egiten ez dakitela konturatu orduko denak gaztelaniara pasatzen omen gara, haiei gauzak errazteko edo. Nirekin, berriz, euskaraz egiterakoan, ez dute gaizki egiteko beldurrik eta naturaltasun osoz zuzentzen dizkiet akatsak.

Berez euskararen arloan egiten al duzu lan?

Berez, ez dut lanik egiten, langabezian geratu nintzen orain hilabete eta erdi inguru. Web orriak diseinatzeko nituen, beraz, zerikusirik ez euskararekin. Hala ere, paron geratu nintzenetik AISA, etorkinentzako euskara ikastaroetan nabil irakasle, Donostian. Orion ere egiten ikastaro hori eta, pentsa, hemen arrakasta izan bazuen, Donostian... jendea behar zuten irakasle lanetarako eta lagun baten bitartez nabil han.

Gozada bat da. Ez da titulua behar duen jendea eta euskara herritarrekin hobeto erlazionatzeko tresna modura erabiltzen dute. Horretarako ikasten dute, ingurukoen-gandik gertuago sentitzeko.

Mintzalaguna eta AISAk irakasle. Gogor eman dizu.

Eta Donostiako San Patricio ikastetxean ere euskarako klaseak ematen ditut, eskola orduz kanpo. Ikastetxe horretan gaztelaniaz eta ingelesez hartzen dituzte ikasgaiak eta, asignatura modura badute ere, ez dakite euskaraz tutik egiten. Izugarritzko pena ematen dit horrek eta, egunero, eguerdian ordu batez aritzen naiz ikastetxeko txikienekin, bidea irekitzen hasteko.

Gainera, orain urte eta erdi bi neska hartu nituen etxean eta oraindik ere hor ditut, kanariarra da bata eta frantsesa bestea. Euskara ikasi nahi zuten, euskaldunekin harremana izateko, eta horretan dabilta.

Euskararen salbatzaile izan nahi duzu, orduan?

Euskarak eman didana itzuli nahi dut. Orain, euskalduna izatea da nire curriculumean garrantzitsua.

TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA - ZARAUTZ														
Donostia	05:47	06:17	06:47	07:17	07:47	08:17	08:47	09:47	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47
Aia-Orio	06:11	06:41	07:11	07:41	08:11	08:41	09:11	10:11	11:11	12:11	12:41	13:11	13:41	14:11
Zarautz	06:19	06:50	07:20	07:50	08:20	08:50	09:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20
Donostia	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	14:41	15:11	15:41	16:11	16:41	17:11	17:41	18:11	18:41	19:11	19:41	20:11	21:11	22:11
Zarautz	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ - DONOSTIA														
Zarautz	06:08	06:38	07:08	07:38	08:08	08:38	09:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08
Aia-Orio	06:15	06:45	07:15	07:45	08:15	08:45	09:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15
Donostia	06:39	07:09	07:39	08:09	08:39	09:09	09:39	10:39	11:39	12:39	13:09	13:39	14:09	14:39
Zarautz	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:09	19:38	20:09	21:09	22:09
Aia-Orio	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:15
Donostia	15:09	15:39	16:09	16:39	17:09	17:39	18:09	18:39	19:09	19:39	20:09	20:39	21:39	22:39

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com

AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN						ASTEBURUETAN					
Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia	Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
06:55	07:25	07:35	06:45	06:55	07:30	08:00	08:35	08:45	06:45	06:55	07:30
07:40	08:15	08:25	07:15	07:25	08:00	09:00	09:35	09:45	07:45	07:55	08:40
08:10	08:45	08:55	07:45	07:55	08:30	10:00	10:35	10:45	08:45	08:55	09:40
08:40	09:15	09:25	08:15	08:25	09:00	11:00	11:35	11:45	09:45	09:55	10:40
09:10	09:45		08:45	08:55	09:30	12:00	12:35	12:45	10:45	10:55	11:40
09:40	10:15	10:25	09:20	09:30	10:10	13:00	13:35	13:45	11:45	11:55	12:40
10:40	11:15	11:25	09:45	09:55	10:30	14:00	14:35	14:45	12:45	12:55	13:40
11:40	12:15	12:25		10:30	11:10	15:00	15:35	15:45	13:45	13:55	14:40
12:10	12:45	12:55	10:45	10:55	11:30	16:00	16:35	16:45	14:45	14:55	15:40
12:40	13:15	13:25	11:45	11:55	12:30	17:00	17:35	17:45	15:45	15:55	16:40
13:10	13:45	13:55	12:45	12:55	13:30	18:00	18:35	18:45	16:45	16:55	17:40
13:40	14:15	14:25	13:20	13:30	14:10	19:00	19:35	19:45	17:45	17:55	18:40
14:10	14:45	14:55	13:45	13:55	14:30	20:00	20:35	20:45	18:45	18:55	19:40
14:40	15:15	15:25	14:20	14:30	15:10	21:00	21:35	21:45	19:45	19:55	20:40
15:10	15:45		14:45	14:55	15:30	22:00	22:35	22:45	20:45	20:55	21:40
15:40	16:15	16:25	15:20	15:30	16:10	22:30	23:05	23:15	21:45	21:55	22:40
16:40	17:15	17:25	15:45	15:55	16:30	OHARRA: lanegunetan koedro egidun ordutako autobusak Urbielatik pasatzen dira. Asteburuetan, berriz, guztiak pasatzen dira. Koedro-irratiko ordutak lanarbatetako (laneguna) zerbitzuetik bakarrik dagozkie.					
17:40	18:15	18:25		16:30	17:10						
18:10	18:45		16:45	16:55	17:30	Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darrena. Zerbitzuari buruzko informazioa lortzeko zerbitu bide deude:					
18:40	19:15	19:25	17:45	17:55	18:30						
19:10	19:45	19:55	18:45	18:55	19:30	www.landabus.com	TF. 943 24 01 14	sms-a 5280 zenbakira			
19:40	20:15	20:25		19:30	20:10						
20:15	20:50	21:00	19:45	19:55	20:30						
21:00	21:35	21:45	20:45	20:55	21:30						
22:15	22:50	23:05	21:15	21:25	22:00						

ITSASOA

Abendua	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
18	05:16 eta 17:39	11:29 eta 23:38	
19	05:50 eta 18:12	12:04 eta _____	
20	06:25 eta 18:46	00:14 eta 12:39	
21	07:02 eta 19:21	00:49 eta 13:15	
22	07:41 eta 20:00	01:24 eta 13:54	
23	08:23 eta 20:46	02:07 eta 14:37	
24	03:13 eta 21:43	02:54 eta 15:27	
25	10:11 eta 22:50	03:51 eta 16:25	
26	11:18 eta 23:59	04:57 eta 17:30	
27	12:27 eta _____	06:07 eta 18:35	
28	01:02 eta 13:30	07:11 eta 19:35	
29	01:57 eta 14:26	08:07 eta 20:28	
30	02:48 eta 15:17	09:00 eta 21:17	
31	03:36 eta 16:06	09:50 eta 22:04	
01	04:25 eta 16:50	10:35 eta 22:50	

ZAINTZAKO BOTIKAK

ABENDUA/URTARRILA ■ 18an, G. Artiñano. ■ 19an eta 20an, Azaldegi. ■ 21ean, Larrañaga. ■ 22an, Mutiozabal. ■ 23an, Etxeberria. ■ 24an, Lasa. ■ 25ean, Azaldegi. ■ 26an eta 27an, Zulaika ■ 28an, Mutiozabal. ■ 29an, Etxeberria. ■ 30ean, G. Artiñano. ■ 31n, Iriarte. ■ 1ean, Iriarte. ■ 2an eta 3an, Lasa. ■ 4an, Etxeberria.	Azaldegi: Urdaneta kalea, 8 943 13 31 83 Zarautz Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17 943 83 23 98 Zarautz Mutiozabal: Kale Nagusia, 12 943 83 29 70 Zarautz Larrañaga: S. Frantzisko, 16 943 13 38 14 Zarautz Lasa: Herriko Plaza 943 83 09 36 Orio G. Artiñano: Zigordia kalea, 17 943 13 40 19 Zarautz Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea 943 13 29 83 Zarautz Zulaika: Bizkaia kalea, 41 943 13 39 94 Zarautz
---	---

OLENTZERO

■ Aian, abenduaren 24an, pailazoak, Olentzero eta txokolate jana. 17:00etan.

■ Orion, abenduaren 24an, Olentzero eta Mari Domingi, 16:30ean, moilara heldu eta, 17:00etan, plazan izango dira. Haurren gutunak jaso bitartean, Txurumuskik antolatutako jolasak izango dira eta Arkupekoek txokolate beroa banatuko dute. 19:00etan, ttuntturroekin eta kantujirakoekin herrian ibili eta Lizargatetik gora joango da Olentzero etxera.

KONTZERTUA

■ Orion, abenduaren 21ean, musika eskolako tailerreko txikien Gabonetako kontzertua, 19:00etan kultur etxean. 18:30ean, Instrumentutako ikasle gazteen kontzertua. 22an, instrumentuetako ikasle helduena. 20:00etan, elizan.

AURKEZPENA

■ Orion, abenduaren 22an, Fabian Loidiren bizitzari buruzko liburuaren aurkezpena. 19:00etan, kultur etxean.

HITZALDIA

■ Orion, abenduaren 23an, Nerea Sancho sexologoaren hitzaldi tailerra. 19:00etan, kultur etxean.

**Badatoz Errege Magoak**

Urtarrilaren 5ean, 18:00etan, helduko dira Errege Magoak Oriora eta herrian barrena goxokiak banatuko dituzte. 20:00etan, Oriotik Aiara igoko dira eta bertan ere gauza bera egingo dute, gero bidea jarraitzeko.

Egun berean, goizean, Erregeen karteroak haurren gutunak jasoko ditu Orion. Aian, berriz, urtarrilaren 3an pasako da Bizarzuri, 11:30ean.

HAUR JOLASAK

■ Orion, abenduaren 22an, pedal-autoak, trizikloak eta patineteak. 16:00etatik 18:00etara, ikastolan.

■ Orion, abenduaren 23an, globoflexia. 26an, zirko tailerra. 28an, txiki txoka eta tailerrak. 29an punteria

tailerra. 30ean, jolas erraldoiak eta txokolate jana. 17:00etatik 19:00etara, kultur etxean.

■ Aian, abenduaren 28an, Barakaldoko BECeko PINera irteera. 14:00etatik 19:00etara. 4 euro. Sarrerak Juanenean salgai

abenduaren 26ra arte.

■ Orion, urtarrilaren 2an, Gabonetako haur parkea. 11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara.

KANTU ESKEA

■ Orion, abenduaren 24an, Ikastolakoan, Zaraguetakoan eta musika eskolakoan Gabonetako kantu eskea. 10:45ean, Ikastolatik. 17:00etan, helduen kantujira Errikotxiakoekin.

■ Aian, abenduaren 24an, Lardizabal eskolako guraso batzordearen kantu eskea. 09:00etan, auzoetara joango dira eta, 17:00etan, herriko buelta egingo dute.

LASTERKETA

■ Orion, abenduaren 31n, San Silbestreko herri lasterketa. 12:00etan, Ikastola ondotik.

ZINEA

■ Aian, abenduaren 26an, *Up* filma. 16:30ean, kultur etxean. 27an, *El valiente desesperaux*, 16:30ean, eta *Harry Potter: el misterio del príncipe*, 18:30ean. 29an, *LOL*, nagusientzat, 16:30ean. 30ean, *Los mundos de Caroline*, 16:30ean. Urtarrilaren 2an, 16:30ean, *Monstruos contra alienigenas*, eta *Saw IV*, nagusientzat, 18:30ean.

AZOKA**Iragarkietarako txokoa**

Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, doako zerbitzua da-eta gurea.

GALDUTAKOAK

■ Audifono bat azaldu da Aiako Iturriozenan. Jabea bertatik pasa jasotzera.

■ Urrezko ume pultsera bat galdu da, Ikastolatik Goikokalera bidean. June du

idatzia. Tf: 680 14 98 84.

ETXE BILA

■ Neska euskalduna alokairuko pisu bila dabil Orion. Interesatuak deitu 647 48 62 32 telefonora.

LAN ESKAINTZA

■ Etxeko lanak egiteko eskarmentudun pertsona behar dut. Autoa izatea beharrezkoa da. 660 38 22 37 (19:00-21:00).

LAN BILA

■ Familia edota edadetuak zainduko nituzke gau eta egun. Eskarmentua badut. Tf: 686 04 27 32.

■ Geriatrian titulatu naiz eta edadetuak, haurrak... zainduko nituzke. Zainketan eta sukaldean eskarmentua dut. 639 40 94 21.

■ Edadetuak zainduko nituzke arratsalde eta asteburuetan. Eskarmentuduna. 600 74 56 86.

■ Ingenieritza teknikoko ikasketak eginak ditut eta banakako eskolak emango nituzke LH, DBH eta batxilergoko ikasleentzat. Deitu: 608 16 49 71.

■ Erizain laguntzaile eta geriatrian titulatu naiz. Edadetuak zainduko

nituzke. Eskarmentuduna. 663 91 43 29 (Kristina).

■ Edozein lan hartuko nuke: 639 40 94 21.

SALGAI

■ Duplex berria Goikokalean. Hiru logela, sukalde osatua, horma-barruko armairuak eta igogailua. 276.000 euro. 653 74 25 76.

■ Golf IIIa oso egoera onean. Informazio gehiago: 652 75 46 99.

■ Etxe aldaketagatik, 190x90eko eta 200x100eko ohea, 6 lagunentzako mahaia eta telebista salgai. 646 18 99 99.

GABONETAN EGIN EROSKETAK MUSIKAREN DOINUAN

HERRI BARRUKO EROSKETEK
HERRITARREN ELKARKIDETZA HOBETZEN DUTE.
LAGUNDU KALEAK ALAITZEN ETA BIZIBERRITZEN.
ZURE DIRUA EZ DADILA KANPORA JOAN;
HORRELA DENOK IRABAZLE!

LARUNBAT ARRATSALDETAN DENDAK IREKITA

**ZORIONAK
ETA
URTE BERRI ON!**